


Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pakita Artola Egiburu

*Alegia,
Gipuzkoa
(1923)*

Aurkibidea



Biografia



Aita Amezketako Ugarte auzokoa zuen, eta ama Bidaniakoa. Bera, ordea, beti bizi izan da Alegian. Bere jaiotetxea San Juan kalean zegoen, zaharregia izatea egotzita bota bazuten ere. Alegian mugimendu politiko nabarmena izan zen gerra aurretik, eta gogoan du frontoian entzundako mitina: umea zen orduan, baina harrigarriak egin zitzaizkion Jose Antonio Agirre edo Telesforo Monzon bezalakoak hitzak. Aita nazionalista zuen, eta Alegian nazionalistek zigor gogorrak jasan bazituzten ere, aita libratu egin zen. Ez, ordea, familiako beste kide batzuk. Garai gogorrak izan ziren haiek Pakitarentzat ere. Gerra garaian Albizturren pasa zituen hilabete batzuk, neskame gisa, baina laster itzuli zen etxera. Alegian bertan ezkondu zen, eta han bizi izan da azken urteetan ere.

Zintak

ALE-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-04-12
- **Iraupena:** 111 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Arteaga, Karmele

Pasarteak

1. Alegiako San Juan kalean jaio eta bizi

- **Erref:** ALE-002/001
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Pakita Artola Egibururen aita Amezketako Huarte auzokoa zen, ama berriz, Bidanikoa. 1923an jaio zen Alegian, urtarrilaren 29an. Beti Alegian bizi izan da. San Juan kaleko etxe batean jaio zen. Etxe hura bota egin zuten zaharra zelako. Ondoren etxe berriak eraiki dituzte.

2. Hiru senidetan zaharrena

- **Erref:** ALE-002/002
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:02:50. **Bukatu:** 00:04:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gazte denbora guztia San Juan kalean pasa du. Hiru senide ziren eta Pakita zaharrena zen. Ahizpa zaharrenak lana gehiago egin behar izaten zuen.

3. Alegiako eskolan asko ikasi zuen

- **Erref:** ALE-002/003
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:04:03. **Bukatu:** 00:06:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Gerra hasi zenean, 13 urte zituen. Orduan utzi zuen herriko eskola. Maistra ona zuten, Irungoa, baina dena erdaraz erakusten zien. Denbora gutxian asko ikasi zuten. Irakurtzea eta geografia zituen gustuko. Liburu bakarra zuten, gai guztiak biltzen zituena. Eskola ondoren, dotrina ikasten zuten eta asko kostata ikasi ere.

4. Dotrina asko ikasi zuten katekista ona zutelako

- **Erref:** ALE-002/004
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:06:53. **Bukatu:** 00:09:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>Komunio txikia sei urte zituztenean egiten zuten eta ondoren dotrina ikasten zuten 12 urte arte. Katekista batek erakusten zien. Gauzak buruz ikasteaz gain dena azaltzen zien. Oso gustura joaten ziren.</p>

5. Eskolan abesten zituzten kantak gerra ondoren aldatu egin ziren

- **Erref:** ALE-002/005
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:09:30. **Bukatu:** 00:10:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza

Laburpena:

<p>Goizean eskolara joaten ziren eta ondoren dotrina ikastera. Eskolatik ateratzerakoan zein abesti kantatzen zuten gogoan du. Gerra ondoren abestiak aldatu egin ziren.</p>

6. Bi maistra, bat gerra aurretik, bestea gerra ondoren

- **Erref:** ALE-002/006
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:10:52. **Bukatu:** 00:12:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Gerra ondoren, Irungo maistra bat etorri zen eta asko irakatsi zien. Gerra aurretik beste maistra bat izan zuten: bertakoa zen; baina, hala ere, gaztelaniaz erakusten zien.

7. Eskolan erdaraz: bertakoek arazoak eta kanpotarrak berriz ez

- **Erref:** ALE-002/007
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:12:25. **Bukatu:** 00:15:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Erdaraz oso gutxi zekiten eta eskolan buruketak ulertzea asko kostatzen zitzaien. Erdaldun batzuk bazeuden eta haiek hobeto moldatzen ziren. Alegian bizi ziren kanpotarrak gogoan ditu. Kanpotar gutxi ziren. Beranduago gehiago etorri ziren.

8. Karlisten mitinean izandako istiluak

- **Erref:** ALE-002/009
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:16:24. **Bukatu:** 00:21:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Gerra aurretik Alegian batzokia zegoen. Pakitaren aita han ibiltzen zen, mitinetan parte hartzen. Errepublika garaia zen eta karlista asko zeuden eta giroa arriskutsua zen. Inguruko herrietako mitinetara isilpean joaten ziren. Karlistek txapela zuria eramaten zuten garai hartan. Behin mitina antolatu zuten Alegian, pilota plazan. Errepublikanoekin borrokan ibili ziren egun hartan. Batzuk atxilotuta eraman zituzten.

9. Abertzaleen mitina Alegiako plazan

- **Erref:** ALE-002/010
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:21:09. **Bukatu:** 00:22:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

<p>Karlisten mitina izan eta aste bete beranduago nazionalistek mitina ospatu zuten Alegian. Irujo, Monzon eta Joxe Antonio Agirrek parte hartu zuten. Pakita eta bere laguna aurre aurrean egon ziren mitin hartan. Mitinaren ondoren batzokira joan ziren zerbait jatera.</p>

10. Senarrak Teruelgo frontea ez zuen sekula ahaztu

- **Erref:** ALE-002/012
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:27:09. **Bukatu:** 00:29:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Pakitaren senarrak gerra garaian pasatakoak gogora ekartzen ditu. Teruelgo frontean bizitakoak bereziki markatu omen zuen, eta beti gogoan izaten zuela dio.</p>

11. Herritarren arteko laguntza gerra garaian eta gerra ondorengo arazoak

- **Erref:** ALE-002/013
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:29:51. **Bukatu:** 00:33:16

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Gerra garaian gorriekin borrokatu zutenek ez zuten lanik aurkitzen bueltatzen zirenean. Alegiako medikua karlista zen eta beldurrez zegoen Tolosatik gorriak etorri eta hil egingo ote zuten; errepublikano batek lagundu zion. Hala ere, gero errepublikanoek gaizki pasa zuten karlistak Tolosara sartu ziren garaian.

12. Tolosako kartzelan gorriak zigortu zituzten eta ondoren ez zien inon lanik ematen

- **Erref:** ALE-002/014
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:33:16. **Bukatu:** 00:37:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Tolosako kartzelan, gorriei izugarritzko zigorrak jartzen zizkietela esaten zuten. Alegiako zenbait gizon bertan zigortu zituzten. Bertan lanik ematen ez ziela eta, batzuek alde egin zuten. Alegiako zenbaiten kasuak aipatzen ditu. Gerra bukatu zenean, erreketek etorri ziren, eta denei lana eman zien, bertakoei eman beharrean.

13. Errepublikanoen bandera eta ikurrinak erre zituzten gerra hasieran

- **Erref:** ALE-002/015
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:37:30. **Bukatu:** 00:39:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Gerra hasi zenean, askok herritik alde egin zuten. Sartu zirenek bandera errepublikanoak eta ikurrinak erre zituzten.

14. Botoa ematerakoan baldintzaturik

- **Erref:** ALE-002/019
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:44:38. **Bukatu:** 00:46:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Pakitan amonak botoa karlistei ematen zien bere etxearen jabe zirelako. Botoa emateagatik ordaindu egiten omen zuten. Behin Pakitaren osabak amonari botoa besteei emateko eskatu zion eta bozkatzera lagundu zuen. Osaba bertan utzi zuten gau osoa eta jatekorik ere ez zioten eman. Gauda pasa ondoren kartzelan sartu zuten.

15. Gerra garaian, etxekoek asko sufritu zuten

- **Erref:** ALE-002/020
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:46:27. **Bukatu:** 00:48:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Pakitaren aita Bilbon zegoela, amari ez zioten etxean sartzen utzi Frantziatik itzuli zenean. Semea erreketen zeukala esan zuenean utzi zioten sartzen. Aita itzuli zenean, Tolosako kartzelan sartu zuten. Tolosan asko fusilatu zituzten.

16. Aita kartzelan

- **Erref:** ALE-002/021
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:48:45. **Bukatu:** 00:51:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Urtebete pasa zuen kartzelan. Apaiza bat ere kartzelan sartu zuten. Beranduago, aita Donostiako Ondarretako kartzelan eduki zuten. Epaiketa iritsi zenean, amak kartzelako arduradunarekin hitz egin zuen.</p>

17. Aitaren epaiketa

- **Erref:** ALE-002/022
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:51:59. **Bukatu:** 00:54:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Aitaren epaiketa iritsi zen; eta, azkenean, askatzea lortu zuten, lekuko askoren aitorpenak entzun ondoren.

18. Emakume eta umeak Alegiako fabrika batean zigorturik zituzten

- **Erref:** ALE-002/023
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:54:40. **Bukatu:** 00:57:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

Aita epaitu zuten garaian Pakitak 15 edo 16 urte zituen. Beldurra pasa zuten. Emakume asko beraien umeekin fabrika eduki zituztela gogoratzen du. Zigortuta zituzten.

19. Gerra lehenengo egunak Alegian

- **Erref:** ALE-002/025
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 01:00:35. **Bukatu:** 01:02:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra garaian izan ziren arpilatzeak (sakeoak) eta hilketak. Nazionalak sartu zirenean, bandoa jo zuten zera esanez, 48 ordutan itzultzen ez zirenen etxeak konfiskatu egingo zituztela. Alegian, bonbak bota zituzten gerra hasieran.</p>

20. Lapurretak gerra garaian

- **Erref:** ALE-002/030
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:12:34. **Bukatu:** 01:14:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Nazionalistek pasa zuten okerren gerra ondoren. Izebak denda txiki bat zeukan; eta, ihes egin ondoren itzuli zenean, dena lapurtu ziotela ikusi zuen. Hala ere, isilik mantendu behar izan zuen. Kutxan zeukan dirua ere lapurtu omen zioten.

21. Albizturen txapel gorria jarrita instrukzioa egiten ibiltzen ziren

- **Erref:** ALE-002/031
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:14:18. **Bukatu:** 01:15:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Pakita Albizturen egon zen garaian, etxeko bi ahizpak ilea moztuta zeuden. Umeak instrukzioak egiten edukitzen zituzten. Pakitak ez zuen sekulan txapel gorriarik jarri. Albizturen hiru hilabete pasa zituen lehengusuen etxean.

22. Karlistadan emakumeak nola zigortzen zituzten

- **Erref:** ALE-002/033
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 01:17:05. **Bukatu:** 01:20:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:

<p>Pakitaren birramona Goiatzen bizi zen. Birramonak karlistadari buruz kontatzen zuena azaltzen digu. Mendian gordeta zebiltzan gizonei emakumeak janaria eramatera joaten ziren eta horregatik Tolosan zigortuak izan ziren.</p>

23. Altzo mendian gordeta Gerra karlista garaian

- **Erref:** ALE-002/034
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 01:20:02. **Bukatu:** 01:22:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:

Pakita eta bere alabak etxean entzundako karlista eta liberalen arteko liskarrak komentatzen dituzte.

24. Alegiako festetan dantzasoka eta piper opilak

- **Erref:** ALE-002/036
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:24:37. **Bukatu:** 01:26:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>Herriko festetan dantzasoka eta sagi ardoa izaten ziren. Festak Sanjoanetan izaten ziren. Corpus Egunean prozesio dotorea egiten zuten. Emakumeek ez zuten parte hartzen. Dantzasoka aureskua izaten zen eta mutilak emakumeak ateratzen zituzten. Herriko emakumeek piper opilak saltzen zituzten eta mutilek neskei erosten zizkien.</p>

25. Piper-opila asko saltzen ziren festetan

- **Erref:** ALE-002/037

- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 01:26:59. **Bukatu:** 01:31:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Piper-opilak erroskilla antzekoak ziren. Karta-joko bat ere egiten zuten piper-opilekin lotuta. Piper-opila asko saltzen zituzten.</p>

26. Zinta jokoa Alegiako Kale Berrian

- **Erref:** ALE-002/038
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:31:00. **Bukatu:** 01:33:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Festa handienak Carmenetan izaten ziren. Bizikletan zinta hartzeko jokoa ere egiten zuten Kale Berriko festetan. Joko hura nolakoa izaten zen azaltzen du.

27. Jendetza handia Alegiako festetan

- **Erref:** ALE-002/039
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 01:33:38. **Bukatu:** 01:36:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Koskor apustuak ere egiten zituzten festetan. Pilotarik gabeko pilota jokoa ere egiten zuten. Alegiako festak fama handia izaten zuten gerra ondorengo garaian. Carmen egunean inguruan ez zen beste festarik izaten eta jende asko joaten zen Alegiara. Ezkonduen eguna ere asmatu zuten.</p>

28. Zenbait gauzetan Hirugarren Munduan bizi zirela iruditzen zaio

- **Erref:** ALE-002/044
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 01:42:32. **Bukatu:** 01:45:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Goizeko seietan meza izaten zen eta hara joaten zen Pakitaren amona. Anaia ere joaten zen, akolito bezala. Oso bizimodu gogorra zen. Hirugarren munduan

bizi zirela iruditzen zaio. Dena bekatua zen. Ezer ez zekiten, denak lotsa ematen zien.

Artola Egiburu, Pakita | ahotsak.eus Orr.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com